

107. ALDIZKARIA - 2002ko irailaren 4a

• III. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOA

○ E T X A U R I

Behin betiko onespena

Udal honek, 2002ko maiatzaren 2an egin bilkuran, erabaki hau hartu zuen:

"Udalaren kirol instalazioak erabiltzeko prezio publikoa arautzen duen ordenantza hasiera batean onesteko erabakia 2002ko 30. Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zen, martxoaren 8an, eta jendaurrean egoteko aldia iragan da, haren kontra inork alegaziorik aurkeztu gabe. Hortaz, Udal honek, boz batez eta legeak eskatzen duen gehiengoa duela, erabaki du:

1. Udalaren kirol instalazioak erabiltzeko prezio publikoa arautzen duen ordenantza behin betikoz onestea.

2. Ordenantza honen testu osoa Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea.

Etxaurin, bi mila eta biko uztailaren bederatzian. Alkatea, Alexander Irujo Labiano.

Udalaren kirol instalazioak erabiltzeko prezio publikoa arautzen duen ordenantza

1. artikulua. Ordenantza honen prezio publikoa Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 28. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren babesean ezarri da.

2. art. Igerilekuaren eta gainerako kirol instalazioen erabiltzaileak daude behartuak ordainarazpen hauek ordaintzera.

3. art. Kirol instalazioen eremura sartuz hasten den erabilerarekin batean sortzen da prezio publikoa ordaindu beharra.

4. art. Pertsona naturalak hartuko dira ordainarazpen honen oinarritzat, edo, bertzenaz, zerbitzuen onuradun diren pertsona juridikoendako gordetako plazak.

5. art. Tasen ordainarazpena tarifa honi lotuko zaio:

Tarifa

A) Abonatu berriak, banaka:

-18 urtetik goiti: 300,51 euro.

-14-17 urte: 180,30 euro.

-9-13 urte: 90,15 euro.

-8 urtetik beheiti: 60,10 euro.

Abonatuen jendakiak, banaka:

-18 urtetik goiti: 180,30 euro.

-14-17 urte: 120,20 euro.

-9-13 urte: 60,10 euro.

-8 urtetik beheiti: salbuetsiak.

Famili planak:

-Hiru kideko familia: Tarifa -Ehuneko 10.

-Lau kideko familia: Tarifa -Ehuneko 20.

-Bortz kideko familia: Tarifa -Ehuneko 30.

-Sei kideko familia: Tarifa -Ehuneko 40.

-8 urtetik beheitikoak ez dira sartuko familiakoen artean.

-Familiak bertze abonatuarekin ahaidetasunik ez badute, helduetariko bat banakako abonatuarekin hartuko da eta familiako gainerakoei abonatuaren jendakien tarifa aplikatuko zaie.

B) Igerilekuetako sarreren prezioak:

Lau urte arte: sarrera doan.

Tikiak (14 urte arte):

-Laneguna: 2,40 euro.

-Jaieguna (larunbatak barne): 3,01 euro.

Handiak (15 urtetik goiti):

-Laneguna: 3,60 euro.

-Jaieguna (larunbatak barne): 4,21 euro.

C) Abonuak:

Denboraldia:

-14 urte arte: 48,08 euro.

-15 urtetik goiti: 78,13 euro.

Hilabetekoa:

-14 urte arte: 30,05 euro.

-15 urtetik goiti: 48,08 euro.

10 eguneko abonua (egunak hautara):

-14 urte arte: 12,02 euro.

-15 urtetik goiti: 24,04 euro.

Lau urtetik beheitikoak: doan.

D) Abonatu iraunkorren kuotak:

1. taldea: 4-13 urte: 40,57 euro.

2. taldea: 14-17 urte: 57,10 euro.

3. taldea: 18-59 urte: 78,13 euro.

4. taldea: 60 urtetik goiti: 40,57 euro.

6. art. Udalaren kirol instalazioetan sartzeko Udalaren baimena edo sarrera eskuratzen denean sortzen da ordenantza honetan arautzen den prezio publikoa ordaindu beharra.

7. art. Instalazioen erabiltzaileek aldioro egin beharko diete men udal kiroldegiaren esparruetan portaeraz eta erabileraz ikusgai paratzen diren arauai.

8. art. Instalazioen ardura duten langileek sarrerak eskatu eta ez aurkezteak udal kiroldegiaren esparrutik kanporatzea izan dezake zehapen.

9. art. Iruzurtzat hartuko da udal kiroldegian behar den sarrerarik edo baimenik gabe sartzea.

10. art. Udalak edozein arrazoiengatik komenigarria dela uste badu, fidantza eskatzen ahalko da, kirol instalazioei zer erabilera emanen zaien.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA

Ordenantza honek bere testu osoa Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denean indarra hartu eta erabateko eragin juridikoa sortuko du.